

Kontu kontalari

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 42-48.

Ipuinak dira Martin Ugaldereen literatur pieza bikainenak. Izugarrizko pila du idatzia, barru-barrutik ateratzen baizaizkio, erraz. Erraz eta maisutasunez. Inork baino hobeto jakin du narrazio laburren teknika menderatzen, eta euskal ipuingintza modernoaren aintzindaritzat dute askok horregatixe.

Txiki-txikitandik izan du Martin Ugaldere idazteko zaletasuna, idazteko beharra eta grina. Horixe izan baita berarentzat idaztea barrenak letretan hustutzea.

Oso gaztetxo zela, Aitzol-ek sustatutako "Euskaltzaleak" elkateak Manuel Larramendiri buruzko lehiaketa antolatu zuen. Gogoz ekin zion lanari, eta ondo egindako lanaren merezimendua jaso zuen ordainetan: sariketako irabazle izendatu zuten. Harrezgero sekula ez dio idazteari utzi.

Eguneroko bizitza lasaia gerrak eten zuenean ere, beldur eta etsipenak paper zuriak zikintzen itotzen zituen. Ihesean Bilbon zirela, sortu zuen ipuin eder bat halako batean. Badaezpada Bartzelonara bidaltzea erabaki zuen. Pulgarcito aldizkarian argitaratua ikustearen poza iaso zuen handik gutxira.

Gaztetatik irakurle amorratua

Hamalau urte zituen artean, baina ordurako liburuak bat bestearen atzetik irakurtzen, irensten, zituen Martinek. Abenturazkoak zituen gustoko, beste batzuen artean, Salgarirenak. Haien abenturekin egiten zuen amets; haiek bezala, abenturak sortzea zuen amets.

Frantziako erbestean sakondu egin zuen bere literatur zaletasuna. Orduan irakurri zituen klasikoak frantsesez. Haien artean Victor Hugorenak zituen maiteenak; *Les Misérables*-ek txundituta utzi zuen.

Alemaniarrek Donibane Garazin atxilotu eta Frantziatik bota zutenean, liburu horiek guztiak maleta zahar batean gordeta ekarri zituen Andoainera, altxor preziatuen modura.

Gerra osteko urte ilunak ziren haiek; literaturak eskaintzen zion ihesbidea. Garai hartan bere inguruan bizi zirenek liburu artean gogoratzen dute Martin; beti irakurtzen, beti idazten. Soldadutzatik itzulita gainera, horixe lortu zuen ogibidea: ofizinarako hartu zuen Manuel Laborde zenak; *jefe de correspondencia* aritu zen.

Idazle hegoamerikarrek txundituta

Caracasera iritsi ondoren hasi zen literatura, bere handitasunean, deskubritzen. Bera bezala Venezuelen erbesteratua zegoen Arano abizeneko irakasle bat egin zuen lagun anaiaren etxean, eta hari eskatu zion astean bitan literatur klaseak eman ziezazkion. Hala irakurri zituen Pío Baroja, Pérez Galdos, Blasco Ibáñez, Emilia Pardo Bazán, Azorín... eta beste asko.

"Fue un buen fundamento, para intercalar y luego seguir con los autores venezolanos y latinoamericanos", utzi du berak idatzia.

Esku artera iristen zitzaizkion haien liburu guztiak irakurtzen zituen. Aurkikuntza atsegina izan zen erabat. Txundituta zeukaten kontaketa haiek, kontatzeko moduak batez ere; desberdina zen erabat berak ezagutzen zuenarekin, berak erabiltzen zuenarekin.

Eta haien idazkera modura moldatzen hasi zen hala. Venezuelartu egin nahi zuen bere hizkera, bere idazteko modua. Ahalegin berezia egin zuen askatasuna eman zion herrialde hartan berezkoak zituzten hitzak erabiltzen, esaldiak haiek bezala lotzen... venezuelarrei venezueleraz nahi baitzien idatzi.

... Eta euskaldunoi euskaraz. Bi hizkuntzatan idatzi baitu Martin Ugaldek, eta bietan maisuki, bere obra aztertu duten adituen arabera.

Bai gaztelaniaz bai euskaraz, uzta oparoa eman du Martin Ugalderen literaturgintzak: hamar ipuin-liburu, lau eleberri eta bi antzerki obra (Ama gaxo dago eta Gurpegi'n aspaldi gertatua). Horien artetik, baina, ipuingintzan lortu du Martinek maisutasunik handiena. Ipuingintza izan da bere berezko literatur jeneroa, betidanik landu eta ezin hobeto menderatu duena.

Ipuin sortzaile

Venezuelara iritsi eta gutxira hasi zen Martin ipuingintzan. Euskal Etxeko Eusko-Gaztedik argitaratzen zuen hilabetekarirako prestatu zuen bat baino gehiago. Horietako batengatik -'Hiltzalleak' izeneko- urrezko domina eman zion Jose Antonio Agirre lehendakariak berak. Ipuinak erraz ateratzen zitzaizkion barrutik, idaztearen harra barruan baitzuen kilika, beti.

Adituek diotenez, garai hartan sortutako ipuinek eta baita gerokoek ere ondo baino hobeto jasotzen dute idazle hegoamerikarren aberastasuna. "Hegoamerikako idazleen ohiartzuna gero eta ozenagoa, haien eraginaren urrezko aro distiratsu hartan bizitzea egokitu zitzaion Martin Ugalderi", dio Andu Lertxundik Martin Ugalderen gainean uztail honetan bertan prestatu duen liburuskan. "Ondo aprobetxatu zuen abagunea", gaineratzen du. "Bi trazo eskematikotan emandako erretratu sakonak. Lurra eta elementu telurikoak, tragedia pertsonalen lekuko mutu. Venezuelako arnasaz hauspotutako hizkeraren indarra. Estilo gero eta pertsonalagoa, bere elipsi, erritmo-aldaketa eta fokumugimendua etengabearekin... Eta guztiaren gainetik (guztiaren hondo-hondoan) gertugertuko giza egoerak, euskaldun baten elkartasunezko begi adiskideez deskribaturik".

Ondo merezitako sari sonatuak

Kontatzeko modu horrek eta kontatzen zituen istorio horiek "harrapatu" egin zituen venezuelarrak, eta hala aitortu nahi izan zioten mereziemenduzko sarien bitartez. 1950eko hamarkadaren hasieran *El Nacional* Venezuelako egunkari inportanteenak antolatzen zuen literatur lehiaketako hirugarren saria jaso zuen. Ez zen, baina, sari zerrenda horretan geratu. *El Universal* eta *Páginas* argitalpenek antolatutako lehiaketa ere irabazi zuen, eta 1955.urtean *El Nacional*-ek eman ohi zuena berriz ere. Orduko hartan, ordea, lehenengo saria eskuratu zuen *Un real de sueño sobre un andamio* izeneko ipuinarengatik.

Ipuin horrexen izen bera jarri zion 1957. urtean argitaratu zuen narrazio laburren lehen liburuari. Geroztik, beste lau liburutan bildu zituen gaztelaniaz idatzitako ipuinak: *La samilla vieja*, *Las manos grandes de la niebla*, *Tres relatos vascos* eta *Cuentos de inmigrantes*.

Euskaraz sortutako ipuinekin beste bost liburu ditu osatuak: *Iltzalleak* (Venezuelan inoiz euskaraz argitaratutako lehen liburua), *Umeentzako kontuak*, *Mantal urdina*, *Mugarri galduen itsumundua* eta *Bihotza golkoan*. Horietan guztietan ugariak dira gaztetan ezagutu zuen Andoaini eta andoaindarrei buruzko istorio eta aipamenak.

Euskal ipuingintza modernoaren aintzindari

Kritikarien arabera, Martin Ugaldek ezin hobeto jakin du narrazio laburren teknika menderatzen. Hara J. A. Ascuncek Martinek gaztelaniaz sortutako ipuinei buruz esandakoa: "En total más de sesenta cuentos que avalan un trabajo sostenido por conquistar las metas secretas de la expresión del relato breve y que consagran al escritor vasco como uno de los cultivadores más importantes de esta difícil especialidad narrativa". Iñaki Beti literatura irakaslearen arabera, berriz, "Martin de Ugalde, efectivamente, maneja los resortes de estructuración y composición del cuento a la perfección".

Teknika hori inork baino hobeto erabiltzen jakin izan duelako, hain zuzen, Martin Ugalde euskal ipuingintza modernoaren aintzindaritzat dute askok. Koldo Izagirreraren arabera, gerraurreko belaunaldikoa izanik ere, Martin Ugalde idazle kontenporanea da, "neolizardismoak eta herrixkatasunak hartutako literatura uzkur, herabe, lainogile hura ukatzen" duena. "Bestek literatura folklorikoa egiten dutelarik", gaineratzen du, "berak biziari, garaiari lotutako literatura egiten digu".

Hala erakutsi du idatzirik utzi dituen eleberrietan ere: *Las brujas de Sorjin*; *Las rejas están sembradas*, *Itzulera baten historia*; eta *Pedrotxo*-n. Konta teknika aldetik eleberri ausartak eta landuak dira guztiak, narrazio bide berriengatik goraipatu litezkeenak.

Las brujas de Sorjin, esate baterako, erbestean idatzitako eleberririk garrantzitsuentzat du J.A. Ascuncek. "*Las brujas de Sorjin* es una gran novela, la novela más importante escrita en el exilio, en la que su autor incorpora la técnicas más actuales y acomete con toda valentía un tema tan difícil y vidrioso como la interpretación de la realidad del País Vasco a lo largo de la época franquista", dio.

Gizatasuna darien kontakizunak

Euskaraz bi eleberri ditu idatziak, eta biak dira sarituak. *Itzulera baten historia* nobelak Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Jon Mirande Saria jaso zuen; *Pedrotxo*-ri, idatzi duen azken eleberriari, berriz, Txomin Agirre saria eman zion Euskaltzaindiak 1993. urtean.

Itzulera baten historia, hein handi batean, Anamari emaztearen familiaren historia da; *Pedrotxo*, berriz, Martinen beraren sendiarena. Eleberri horretan kontaktzen ditu Andoaingo hospitalean mojekin bizi izan zen mutiko umezurtz gizagaiso baten pasadizoak, gerra osteko giro gordinean girotuak. Kontaketa horretan, tarteka, Martinek berak bizitutakoak gurutzatzen dira, fikzioa eta errealitatea nahastuta.

Hara zer dion Xabier Mendigurenek nobelari buruzko azalpenean: "*Pedrotxo* hau ez da ordea eleberri politikoa; askoz gehiago da eleberri humanoa, era guztietako baztertuen aldeko elkertasunezko besarkada bat". Izan ere, halako kontuak idatzi baititu beti, gizatasuna bor-bor darienak.